2024ITGB0022

.-Ordizian, 2025EKO URTARRILAK 9an, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día 9 DE ENERO DE 2025* ***se*** *reúne en el Salón de Plenos la* ***JUNTA DE GOBIERNO LOCAL*** *en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Maitane Alvarez Garziandia (EH BILDU ORDIZIA)
Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)
Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)
Julen Iraola Matxain (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS (ordezkoa)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Viviana Angélica Murillo Cazar (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)
Ana Mª Sanchez Herraez (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA) excusa su asistencia.

**IDAZKARIA**

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave (bere ordez Idoia Elizalde Curto jaso du akta)

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

Gregorio Iruretagoyena Echaniz (EAJ-PNV) bertaratu da.

**AZTERTUTAKO GAIAK**

***ASUNTOS TRATADOS***

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

1.- 2024ko abenduaren 12a ohiko bilkurako akta onartzea.

*1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria del 12 de diciembre de 2024.*

2.-2024eko azkeneko kreditu aldaketen 2024ICAD0009 / 2024ICAD0010 / 2024ICAD0011 (2024/1894, 2024/1906, eta 2024/2037 Dekretuak) eta 2025eko aurrekontu luzatuaren berri ematea.

*2.- Informar de las últimas modificaciones de crédito del año 2024 2024ICAD0009/2024ICAD0010/2024ICAD0011 (Decretos 2024/1894, 2024/1906, y 2024/2037) y del presupuesto prorrogado del año 2025.*

| | |
|---|---|
| *3.-2025 lan egutegia. 2024SPEO0002 (2024/2044. Dekretua).* | *3.- Calendario laboral 2025. 2024SPEO0002 (2024/2044. Decreto).* |
| 4.-2025eko deialdien egutegia. | *4.- Calendario de convocatorias 2025.* |
| 5.- Gipuzkoako Urakekin hitzarmena berritzeko proposamena. | *5.- Propuesta de renovación del convenio con Gipuzkoako Urak.* |
| 6.- Urdanetarrak guraso elkarteak eskatutako bileraren data adostea. | *6.- Acordar la fecha de la reunión solicitada por el AMPA Urdanetarra.* |
| 7.- Kontratu txikien berri ematea 2024SCTX0069 / 2024SCTX0071 / 2024SCTX0072 (2024/1905, 2024/2017 eta 2024/2046 dekretuak). | *7.- Publicidad de los menores contratos 2024SCTX0069/2024SCTX0071/2024SCTX0072 (Decretos 2024/1905, 2024/2017 y 2024/2046).* |
| 8.- Zenbait txosten eta eskaera.<br>.- Urteko Kudeaketa txostenak. | *8.- Diversos informes y solicitudes.*<br>*.- Informes de gestión anuales.* |
| 9.- Galde-eskeak. | *9.- Ruegos y preguntas.* |

.- aurreko aktaren inguruan gai batzuen hitz egindakoa ez zela jaso.
.- zergatik alkatearen soldata ez den azaltzen Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikorako Ministeritzako webgunean.
.- azokako ekoizle batek sareetan jarrirakoari buruzko galdera.
.- argazkian ateratzen diren ekoizle batzuk ez zekitela zertarako zen argazki hori.
.- plazako azoka erdizka jeistearen zergatia.
.- .- Altamiran eroritako zuhaitza.
.- Pleno aretoko kamarak.
.- . Sexu eraso baten inguruko galdera.
.- Aurreko aktari buruzko zuzenketa.

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 14:45 etan** **AMAIERA ORDUA: 15.50 etan**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2024ko abenduaren 12ako bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

2024ko abenduaren 12ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

**1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 12 de diciembre de 2024.**

*Propuesta*

*Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 12 de diciembre de 2024.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Joseba Aranburuk, EAJko Zinegotziak adierazi du aurreko aktan, berak esan nahi zuena zen 340.000 euro gehitzen zirela aurreko aurrekontutik gehi 100.000, hau da, 440.000, eta ea zegoen aukera horiek elkartzeko hurrengo aurrekontura. Badakiela hori lizitatu egin dela. Berak esan nahi zuena zen, ea lizitatu daitekeen aurten miloi bat, aipatutako zenbateko horrekin batuta.

*Joseba Aranburu concejal del PNV, señala que lo que él quería decir en el acta anterior era que se sumaban 340.000 euros del presupuesto anterior más 100.000, es decir 440.000, y a ver si existía la posibilidad de que ese importe se sumara al siguiente presupuesto. Afirma que ya sabe que se ha licitado. Lo que él quería decir era si este año se podría licitar un millón, sumado a la citada cantidad.*

Alkateak adierazten du kontuan edukiko dela Josebak aipatutakoa aurreko aktan aldatzeko. Urdaneta ikastetxeko obraren lizitazioa urte amaieran argitaratu dela eta zuzendariarekin hitz egin duela aipatzen du, hasieran aurreikusita baitzegoen obra martxoan amaitzea, baina beraiei hobeto datorkiela udaran izatea, orduan, epeari dagokionez, ekainak 1-etik irailak 30-arte gauzatu beharko dela kontratua adierazten du, bereziki, ez elkartzeko umeen ikasturtearekin, edo behintzat ahal den gutxien afektatzeko.

*El alcalde afirma que se tendrá en cuenta para que se modifique lo mencionado por Joseba en el acta anterior. Comenta que se ha licitado la obra de Urdaneta ikastetxea y que se publicó a finales de año y que habló con el director, ya que en un principio estaba previsto que la obra se terminara en marzo, pero que ven más conveniente que sea en verano, y que el contrato se ejecute desde el 1 de junio hasta el 30 de septiembre, especialmente para que no coincida con el curso escolar, o al menos, para que les afecte lo menos posible.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Bozketa

Aurreko aktaren onarpena ez da bozkatuko, Idazkaria ez dago eta bileran. Gainera, Vivianaren ordez zenbait gauza komentatu ditu Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, eta Viviana bera ez dagoenez, hurrengo Tokiko Gobernu Batzordera eramango da berriro akta zirriborroaren onarpena, aktan behar diren aldaketak egin ondoren.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2024eko azkeneko kreditu aldaketen 2024ICAD0009 / 2024ICAD0010 / 2024ICAD0011 (2024/1894, 2024/1906, eta 2024/2037 Dekretuak) eta 2025eko aurrekontu luzatuaren berri ematea.**

***2.- Información sobre las últimas modificaciones de crédito de 2024 2024ICAD0009 / 2024ICAD0010 / 2024ICAD0011 (Decretos 2024/1894, 2024/1906 y 2024/2037) y el presupuesto prorrogado para 2025.***

Eztabaida

Alkateak, hasiera ematen dio honako puntuari aipatuz kreditu aldaketa hauek Osoko Bilkurara joango diren arren, Tokiko Gobernu batzordean azalduko dituela. Dioenez, urtea amaitu baino lehen hiru espediente bidali zaizkie deialdiarekin batera, zehazki, dekretuak eta proposamenak. Komenigarria iruditu zaiola kontuhartzailetzak egindako txosten proposamenak bidaltzea aipatzen du, dekretuan kopuru orokorra jartzen duelako baina ez delako desglosatua azaltzen.

*El alcalde, en relación con este apartado, comienza explicando que, si bien las modificaciones de crédito van a pasar por el Pleno, ve conveniente explicarlas en la Junta de Gobierno Local. Afirma que antes de fin de año se les envió tres expedientes junto con la convocatoria, concretamente los decretos y los informes-propuesta. Menciona que le ha parecido conveniente enviar los informes-propuesta realizados por Intervención, ya que en el Decreto se fija un número global pero no se detalla el desglose.*

Txosten proposamenetan ikusi dezaketen bezala, orokorrean, nahiko txiki diren kopuru batzuk agertzen direla adierazten du, bai Euskal jaietan eta bai Ordiziako herriko jaietan imputatuako gastu batzuen bariazio batzuei dagozkionak: Hor ikus ditzakete, adibidez, 10.000 euroko eta 13.000 euroko aldaketen kontzeptuak…, guztira, 25.460,80 euroko aldaketa. Dioenez, hauek kontuhartzailetzatik atera dira urtea bukatzeko, dagoeneko kontabilitate guztia ari direlako jasotzen. Gero, beste aldaketa bat dagoela guztira

*Asimismo, afirma que como pueden ver en los informes-propuesta, en general, aparecen cantidades relativamente pequeñas, correspondientes a algunas variaciones de gastos imputados tanto a las fiestas vascas como a las patronales de Ordizia, donde se pueden ver, por ejemplo, los conceptos de 10.000 euros y 13.000 euros... en total, 25.460,80 euros. Indica que estos importes se han determinado desde Intervención para finalizar el año porque ya están recogiendo toda la contabilidad. A continuación,*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

19.190 eurokoa dena aipatzen du; baita, proposamenean ikus dezaketela inbentarioen lizitazioa atera dela (non enpresa bat aurkeztu da). Jarraitzen du esanez, hor ajuste batzuk egin zirela lizitazioa ateratzeko, 60.000 euro baitzeuden aurreikusita eta azkenik, 68.790 eurotan atera baitzen.

*señala que hay otra modificación por un importe total de 19.190 euros y que en la propuesta pueden ver que se ha publicado la licitación del inventario (a la que se ha presentado una empresa). Continúa diciendo que ahí se hicieron unos ajustes antes de sacar la licitación, ya que inicialmente estaban previstos 60.000 euros y finalmente fueron 68.790 euros.*

2025eko aurrekontu luzatuari dagokionez, jarraitzen du azaltzen, dekretua ezin izan dutela ekarri Tokiko Gobernu Batzordera, kontuhartzailetzako teknikariak arazo pertsonalak izan dituelako, baina urtarrilak 2tik dagoen aurrekontua luzatzeko dekretua prest egongo dela urtarrilak 10ean. Honen inguruan, aipatzen du komentatu nahi zuela abendua amaitu baino lehen kontsulta batzuk egin zituela, bai foru aldundian, bai beste kontuhartzaileekin. Adierazten du, luzatutako aurrekontua ez dela onartutako behin-betiko aurrekontua baizik eta abenduak 31an dagoen aurrekontua. Orduan, azaltzen du, abenduko azkeneko egun horietan, azterketa bat egin zela bai kontuhartzailetzatik bai haien aldetik eta hor, ikusita likidazioa martxora arte ez zutela edukiko, eta ikusita martxan daudela hainbat lizitazio eta hainbat kontu luzatutako aurrekontuarekin garatu ezingo zutenak, erabaki zela aldaketa posible guztiak alkate Dekretu bidez egitea. Honen inguruan, adierazten du alde batetik, batzuk badirela urte bukaerako kontratu batzuk martxan jartzeko (Urdaneta ikastetxeko instalazioak izan daitezkeen bezala) baina beste batzuk, aurreikusita dauden kontratazioak aurrera eramateko direla, eta honakoak aipatzen ditu:

*Respecto al presupuesto prorrogado del año 2025, continúa explicando que el decreto no ha podido traerse a la Junta de Gobierno Local por asuntos personales de la técnico de intervención, pero que el decreto de prórroga del presupuesto existente desde el 2 de enero estará listo el 10 de enero. A este respecto, señala que quería comentar que antes de finalizar el mes de diciembre realizó una serie de consultas tanto con la Diputación Foral como con otros Interventores. Indica que el presupuesto prorrogado no es el presupuesto definitivo aprobado sino el presupuesto a 31 de diciembre. Por ello, explica que a finales de diciembre se analizó el tema, tanto desde el departamento de Intervención como por ellos, y se concluyó que a la vista de que la liquidación no iba a estar preparada hasta marzo, y a la vista de que están en marcha varias licitaciones y otros asuntos que no se pueden realizar con el presupuesto prorrogado, se decidió que todas las posibles modificaciones se realizaran mediante Decreto de Alcaldía. A este respecto, señala, por un lado, que algunos se corresponden con la puesta en marcha de los contratos de fin de año (como podrían ser las instalaciones de Urdaneta Ikastetxea), pero otros tienen como objetivo llevar a cabo las contrataciones previstas. A tal efecto procede a explicar cada uno de los siguientes puntos:*

- Animalien zaintza luzatutako aurrekontua 9.000 euro izango ziren baina azkenean 17.000 euro izango dira.

*- El presupuesto prorrogado para el cuidado de los animales ascendía a 9.000*

*euros y finalmente va a ser de 17.000 euros.*

- Ongi Etorri Euskarara kontratuaren kasuan, hemendik gutxira argitaratuko dela aipatu du, 44.000 euro izango ziren baina azkenean 55.800 euro izango dira.

*- En el caso del contrato "Ongi etorri Euskarara", comenta que se publicará próximamente y que pasaría de 44.000 euros a 55.800 euros.*

- Zuhaiztiren instalazioen mantenuen kasuan berdin.

*- Señala que algo similar ocurre en el caso de mantenimiento de instalaciones de arbolado.*

- Gaztelekuen kontratuan, lizitazioa aterata zegoela eta 6.000 euroko igoera egon zela esan du. Kasu honetan, lizitazio hau aterata dagoela esan du eta luzatutako aurrekontuarekin ez zuela emango adierazi du.

*- En el contrato de "Gazteleku" dice que la licitación estaba publicada y que hubo un incremento de 6.000 euros. En este caso, afirma que este contrato ha salido a licitación y que no iba a ser suficiente con el presupuesto prorrogado.*

- Jakes etxean, aldaketa egiteko eskaera bideratu duela hirigintzako teknikariak eta hor igoera bat planteatzen zela azaldu du.

*- En la casa de "Jakes", el Técnico de urbanismo ha tramitado la solicitud de modificación donde se planteaba un incremento.*

- Udalak jabetzak dituen komunitateen gastuei dagokienez, adierazi du ez zela nahikoa fatxada batzuetan obrak egiteko aurreikusitakoarekin aipatu du.

*- En relación con los gastos de comunidades en las que el Ayuntamiento tiene propiedades, comenta que no era suficiente con lo previsto para la ejecución de obras en algunas fachadas.*

- Goiekin ere ajuste bat egiteko beharrezkoa zen ekarpena egin dela aipatu du, ordaintzeko ez zelako iristen.

*- En el caso de "Goieki" afirma que se ha hecho la aportación necesaria para hacer un ajuste porque el importe no era suficiente.*

- Zuhaiztiko eguneko arreta zentroaren eskaileren kasuan, (garrantzitsuenetarikoa dena, 101.500 euroko aldaketa delako), egiten ari diren obran, honako arazoak egon direla adierazten du: Suteen aurkako instalazioarekin eta aurreikusita zueden sistemekin arazoak egon direla esan du, ez zelako konpatiblea aurretik zegoen zentralitarekin eta kontratu aldaketa egin behar izan dela azaltzen du lanak bukatu ahal izateko.

*- En el caso de las escaleras del centro de atención diurna de Zuhaizti (una de las más importantes por tratarse de una modificación de 101.500 euros), indica que en la obra que se está ejecutando ha habido problemas con la instalación contra incendios y con los sistemas que estaban previstos, ya que no era compatible con la centralita preexistente y explica que ha sido necesario realizar una modificación contractual para poder finalizar los trabajos.*

- Urdaneta Ikastetxeko inbertsioan ere lizitazioa atera dela informatu du, hor diru bat gastatu dela berrikuntza batzuk egiteko, eta zati bat falta zela, eta ikus dezaketen bezala, partidak txukuntzen joan direla azaltzen du.

*- Informa que también se ha publicado la licitación del Colegio Urdaneta donde se ha destinado dinero para hacer algunas reformas, y afirma que faltaba parte y que tal y como pueden apreciar en las partidas, se han ido ordenando.*

- Komun publikoetako garbiketaren kasuan, ikus dezaketela igoerak daudela eta pleguak amaitzear daudela azaldu du, urte hasieran atera nahian. Adierazi duenez, aukerak zirela: edo aldaketa bat egitea edo martxora arte soberakinak eduki arte itxoitea.

*- En el caso de la limpieza de aseos públicos, pueden ver que ha habido subidas y que están a punto de terminar los pliegos, por lo que la licitación saldrá a principios de año. Indica que las opciones eran o hacer una modificación o esperar hasta marzo a tener excedentes.*

- Gizarte hezkuntza arloko esku hartzearen kasuan, nerabeekin egiten dituzten interbentzioak aurrera eramateko lizitazioa ongizatetik prestatuta daukatela adierazi du. (IZANek eraman duena orain arte).

*- En el caso del contrato de Intervención Socioeducativa indica que tienen preparada la licitación consistente en llevar a cabo las intervenciones socio educativas con adolescentes desde el área de Bienestar Social. (Afirma que hasta ahora lo ha llevado IZAN).*

- Eguneko zentroaren kontratuan ere, iaz foru aldunditik igoera bat egon zela langileen soldatetan aipatzen du, eta luzatutako aurrekontuak ez zuela emango adierazi du.

*- En el contrato del Centro de Día también menciona que el año pasado se produjo un incremento desde la Diputación en los salarios de los trabajadores, y que el presupuesto prorrogado no iba a ser suficiente.*

- Euskaraldiko dinamizazioa ere ez zegoela aurreikusita aipatzen du, eta hori hasierako hiru hilabeteetan egiteko aurreikusita dagoela esaten du.

*- Menciona que tampoco estaba prevista la dinamización de “Euskaraldia”, y que está previsto que se realice en los tres primeros meses.*

- Ordizia Zabalik-en kasuan, aurten enpresa gehiago aurkeztu direnez, urte bukaerako errebisioa egin behar izan dela eta igoera bat egon dela adierazi du.

*- En el caso de “Ordizia Zabalik”, como este año se han presentado más empresas, ha sido necesario hacer una revisión a final de año y se ha producido un incremento.*

- Azkenik, NEXT Turismo inbersioetara bideratutako 117.549,01 euroko kopuruaren inguruan honako azalpenak eman ditu: D´elikatuzen, eraginkortasun energetikoan hobetzeko, 65.000 euro daude lortutako dirulaguntzatik baino hirigintzako teknikariek proiektu integrala

*- Por último, en cuanto al importe de 117.549,01 euros destinado a las inversiones procedentes de fondos NEXT (Turismo), explica que en el caso de D´elikatuz, para la mejora de la eficiencia energética hay 65.000 euros procedentes de ayudas, pero los Técnicos de*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

eskatu dutela eta NEXT gastua 200.000 ingurukoa izango dela esan dute, orduan soberakin bat zegoenez dirua ere hor jarri dutela lehen bailehen lizitazio horiek aurrera eramateko.

*Urbanismo han solicitado un proyecto integral y han afirmado que el gasto va a rondar los 200.000 euros, por lo tanto, como había un excedente, ese dinero se va a destinar a sacar cuanto antes esas licitaciones.*

Alkateak amaitzen du atala adieraziz Osoko Bilkurara eramango direla aipatutako puntu guztiak baina aurretik komunikatu nahi zituela. Honekin batera, kontuhartzailetzako teknikariak aztertzen ari den dekretua bidaliko diela adierazi du eta honakoa azaldu du denok jakinaren gainean egoteko eta argi edukitzeko:

*Finaliza el alcalde señalando que se trasladarán al Pleno todos los puntos mencionados, pero que quería comunicarlos previamente. Asimismo, indica que les enviará el decreto que está analizando la Técnico de Intervención, y explica lo siguiente:*

Luzatzen den aurrekontua abenduak 31ko aurrekontua da, eta zehazki luzatzen dira honako kapituluak:

*El presupuesto que se prorroga es el presupuesto de 31 de diciembre, concretamente los siguientes capítulos:*

- 1 eta 2. Kapituloak osorik.

*- Capítulos 1º y 2º, completos.*

- 4. Kapituloan dirulaguntzak eta haiek egiten dituzten ekarpenak luzatzen dira. Hau da, bakarrik urtero errepikatzen direnak. Adibide gisa, aldaketa bat ikus dezaketela Pelotazale eta Udalaren arteko hitzarmenean adierazten du, hori jasota ez zegoelako eta 2024ean sartu dutelako azkeneko momentuan, gero errepikatzeko 2025ean. Orduan, erakunde ezberdinek jasotzen dituzten dirulaguntzak eta urtero errepikatzen diren ekarpenak luzatuko direla azalatzen du. Baita, inbertsioetan ere bai, berez, inbertsioak ez dira luzatzen baina urteroko izaera dutenak (hau da, argiteria, asfaltatze kanpaina, obra txikietan edo makinaria urtero daukagun inbertsioetako errepikatzen diren partidak…) errepikatu egingo dira. Ulertzeko, Urdanetako inbertsioa ez da luzatzen baino urtero orokorrak diren inbertsioak bai.

*- En el 4º capítulo, se prorrogan las subvenciones y sus aportaciones. Es decir, sólo los que se repiten anualmente. A modo de ejemplo, señala que pueden ver un cambio en el convenio entre la Asoc.Pelotaris y Ayuntamiento, que no estaba recogido y lo han introducido en el último momento en 2024, para luego repetirlo en 2025. Argumenta que se van a prorrogar las subvenciones que reciben las diferentes entidades y las aportaciones que se repiten cada año. Incluso en el caso de las inversiones, de por sí, no se prorrogan, pero sí las de carácter anual (es decir, alumbrado, campaña de asfaltado, partidas que se repiten en obras menores o de maquinaria...). Para entenderlo, la inversión de Urdaneta no se prorroga, pero las inversiones que se repiten anualmente sí.*

Joseba Aranburuk, EAJko Zinegotziak, kirol taldeei egin zitzaien aportazio handiagoa falta dela adierazi du.

*Joseba Aranburu concejal del PNV, afirma que echa en falta la aportación destinada a los equipos deportivos.*

Alkateak, hori osoko bilkuratik pasatu beharko dela erantzuten dio, eta horrelako gehiago daudela adierazi du, baina lehenengo hiru-sei hilabeteetan egin behar diren gauzak izan direla aurreikusi direnak azaltzen dio.

Aurrekontua luzatuekin hasiko direla lanean esaten du, ez dakiela bestelako proposamenik daukaten egiteko, beraz, aipatzen du, ez badutela jasotzen bere garaian aurkeztutako aurrekontuaren inguruko beste proposamenik, horrela jarraitu beharko dutela lanean. Horrek ekarri beharko duela azterketa zehatzagoa eta batzuk detektatuta dituztela adierazi du (adibidez, Josebak aipatutakoa). Horregatik, Kontuhartzailetzako Teknikariak aztertzen joan behar duela nola gelditzen diren luzatzen diren partidak aipatu du. Gainera, nahiz eta aurrekontua luzatuta izan, bai luzatzen direla abenduak 31-ren datarekin, baina, sarrerak ez direla igualak izango dakitela aipatzen du (sarreretan, Ordenantza Fiskalaren igoera dago aurreikusita, foru funtsak esan diete baita igoera bat dagoela….) Orduan, adierazten du, ikusi beharko dutela luzatutako aurrekontuko gastuak eta 2025 eko sarreren artean nola gelditzen den, hau da, ze bolsa daukaten.

Alkateak, azaltzen du kontuhartzailetzatik esan dietela beraiek esfortzua egin nahi dutela likidazioa ahal den azkarren amaitzeko, martxoan muga dagoela jakinda. Beraz, adierazten du hori edukitzean, informatuko dietela nola gelditzen den eta detektatuko dituztela beste zenbait gauza. Behin dekretua onartuta egon eta 2025eko aurrekontu luzatua eduki, horren gainean hitz egingo dutela jakinarazi du alkateak.

*El alcalde, responde que esto tendrá que pasar por el Pleno y que hay más supuestos similares, pero le explica que lo que se ha previsto principalmente han sido cosas pendientes para los primeros tres y seis meses.*

*Asimismo, afirma que empezarán a trabajar con los presupuestos prorrogados, salvo que tengan alguna otra propuesta, por lo que mientras no reciban otra propuesta en relación con el presupuesto que se presentó en su día, seguirán trabajando sobre esto. Señala que se realizará un análisis más detallado y que hay algunos supuestos ya detectados (como, por ejemplo, el mencionado por Joseba). Por ello, comenta que la Técnico de Intervención tiene que ir analizando cómo quedan las partidas que se prorrogan. Además, aunque el presupuesto esté prorrogado, se prorrogan a fecha 31 de diciembre, pero señala que saben que los ingresos no van a ser iguales (en los ingresos está previsto un incremento de la Ordenanza Fiscal, los fondos forales les dicen que hay un aumento...). Indica que tendrán que ver cómo queda la situación entre los gastos del presupuesto prorrogado y los ingresos de 2025, es decir, qué bolsa tienen.*

*El alcalde, explica que desde el área de Intervención se les ha dicho que quieren hacer un esfuerzo para finalizar la liquidación lo antes posible, sabiendo que el límite está en marzo. Por lo tanto, afirma que cuando lo tengan les informarán de cómo queda y detectarán otras cosas. El alcalde informa que una vez aprobado el decreto y con el presupuesto prorrogado de 2025, hablarán sobre ello.*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**Beraz jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.-2025 lan egutegia. 2024SPEO0002 (2024/2044. Dekretua).**

***3.- Calendario laboral 2025. 2024SPEO0002 (Decreto 2024/2044).***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan

Alkateak, jakinarazten die urte bukaeran lan egutegia langile batzordearekin adostu zela baina momentuan idazkariak oporrak hartu zituela eta beste zenbait faktore izan zirela, egutegia urtea amaitu baino lehen onartu beharrean, egutegia onartu gabe hasi zutela urtea. Dena den, argitzen du egutegiaren gaiak argi zeudela, aurtengo urteko jai egunak, (bidalitako dekretuaren arabera) bai estatuak, bai Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiak ezarritakoak baitira. Azaltzen du, Udalan ezarritakoak uztaileko osoko bilkuratik pasa zirela, eta honakoak direla:

*El alcalde, informa que a finales de año se acordó con la Junta de Personal el calendario laboral, pero que en ese momento la secretaria se encontraba de vacaciones y que unido a otros factores, en lugar de aprobarlo antes de fin de año comenzaron el año sin la aprobación definitiva del mismo. No obstante, aclara que los temas de cómo configurar el calendario estaban claros, ya que los días festivos del año en curso (según el decreto remitido) son los establecidos tanto por el Estado como por el Gobierno Vasco y la Diputación Foral. Explica que los establecidos en el Ayuntamiento pasaron por el Pleno de julio y son los siguientes:*

- Abenduaren 26eko jai eguna 24era pasatzea erabaki da, eta  aurten oso zubi gutxi daudenez, (maiatzak 1, abuztuak 1 eta abenduak 26), urteko ordu zenbatekoa kontuan hartuta, langileek maiatzekoaren eta abendukoaren arteko zubi bat aukeratzea adostatu dute. Honekin batera, abuztuak bat guztiontzat jai eguntzat hartuko dela aipatzen du.

*- Se acuerda que la fiesta del 26 de diciembre pase al 24, y dado que este año hay muy pocos puentes (1 de mayo, 1 de agosto y 26 de diciembre), teniendo en cuenta el número de horas anuales, los trabajadores tendrán que elegir entre el puente de mayo y el puente de diciembre. Asimismo, añade que el 1 de agosto se considerará festivo para todos.*

- Beste aldetik, 2025 urteko orduei dagokionez, 7,25 minutu egunero kalkulatu direla azaltzen du, eta gero, garbiketan izan ezik, zerbitzu orokorretako obrak etab. ordutegi berezia edukitzen dutela, eta garbiketakoak eta udaltzainak

*- Por otro lado, respecto a las horas del año 2025, explica que se han calculado 7,25 minutos diarios. Luego estarían, por un lado, los Departamentos de Obras, de Servicios Generales, etc. que tienen un horario especial, y por otro lado, los de*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus   www.ordizia.eus

beste aldetik, ordutegi berezia baita edukitzen dutela.

*Limpieza y Policía Local, que también tienen un horario especial.*

Joseba Aranburuk, EAJko Zinegotziak, galdetzen du ea noiz diren Euskal Jaiak 2025ean.

*Joseba Aranburu concejal del PNV, pregunta cuándo son las Fiestas Vascas en 2025.*

Alkateak, irailak 10ean direla Euskal jaiak erantzun dio, beti direla 8tik gertuen dagoen asteazkenean.

*El alcalde le responde que el 10 de septiembre. Se coge como referencia el miércoles más cercano al día 8.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- 2025eko deialdien egutegia.**

***4.- Calendario de convocatorias 2025.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkateak aipatzen du Tokiko Gobernu Batzarrarekin partekatu nahi zuela gai hau, idazkariarekin egon zela hizketan honen inguruan eta berak jasota zeukala aktan: apirilean erabaki zela Tokiko Gobernu batzar bakarra egitea. Azaltzen du, 2025ean aste santua 17, 18 eta 21 egunetan tokatzen dela eta osoko bilkura, asteazkenean 30ean izango dela, eta deialdia ostiralak 25ean egin beharko dutela. Beste aldetik, komentatzen du batzorde informatiboak 15ean izango direla (aste santua baino lehen) eta deialdia 11 egingo dela. Honekin batera, gogorarazten die, 30ean, osoko bilkura dagoenean, tokiko gobernu batzordea jarri zutela (hilabeteko bukaerakoa). Jarraitzen du azaltzen, apirilean, lehenengo astean ez dagoela ezer eta 3an tokatzen dela Tokiko Gobernu Batzordea, eta ez dutela aurkitzen hilabete osoan bat bakarra egiteko adostasunaren arrazoia.

*El alcalde comenta que quería compartir este tema porque estuvo hablando con la secretaria y le dijo que lo que a ella le constaba en el acta era que en abril se acordó celebrar una única Junta de Gobierno Local y eliminar la del día 3. Explica que en 2025 la semana santa tiene lugar los días 17, 18 y 21 y que el pleno tendrá lugar el miércoles 30, debiendo hacerse la convocatoria el viernes 25. Por otro lado, comenta que las Comisiones Informativas serán el día 15 (antes de la Semana Santa) y que la convocatoria será el día 11. Les recuerda que el día 30, cuando hay Pleno, se puso la Junta de Gobierno Local (la de finales de mes). Continúa explicando que, en abril, la primera semana no hay nada y que el 3 tocaría Junta de Gobierno Local y que no encuentran el motivo de por qué se acordó hacer una única Junta de Gobierno Local.*

<u>Joseba Aranburuk,</u> EAJko Zinegotziak, esaten du, 15a ia jai gisa hartzen dela, jendeak 11tik jai hartzen duela.

*<u>Joseba Aranburu</u> concejal del PNV, dice que el día 15 se considera casi festivo, que la gente se suele coger fiesta desde el 11.*

<u>Alkateak</u> erantzuten dio, horrek eragina duela informazio batzordeetan, eta ez hainbeste Tokiko Gobernu Batzordean, zeren Tokiko Gobernu batzordea 3an da eta hori ezabatu zen, baina afektatzen duela gehiago informazio batzordeetan tokiko gobernu batzordean baino.

*<u>El alcalde</u> responde que esto afecta a las Comisiones Informativas y no tanto a la Junta de Gobierno Local, ya que la Junta de Gobierno Local es el 3 y se eliminó, y que las que se ven afectadas son las Comisiones Informativas.*

Gaia horrela ustea erabakitzen dute printzipioz, zinegotzi guztiei bidaliko zaie eta zuzenketak egin behar badira egingo direla baieztatzen du.

*Acuerdan dejar el tema como se acordó e indica que remitirá el asunto al resto de concejales y que, si es necesario, se harán las modificaciones pertinentes.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**<u>5.- Gipuzkoako Urakekin hitzarmena berritzeko proposamena</u>**

***<u>5.- Gipuzkoako Urakekin hitzarmena berritzeko proposamena</u>***

<u>Eztabaida</u>

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

<u>Alkateak</u> azaltzen du gai hau osoko bilkuratik pasako den gaia dela, dena den, informatu nahi zietela aurreko asteartean bildu zela Iñigo Elosegirekin (Gipuzkoako Urak-eko gerentearekin):

*<u>El alcalde</u> explica que éste es un tema que va a pasar por el Pleno, pero que les quería informar que el pasado martes se reunió con Iñigo Elosegi (Gerente de Gipuzkoako Urak):*

2010ean hitzarmena sinatu zela gogorarazten die, 15 urteko iraupenarekin, Gipuzkoako Urakek uraren kudeaketa egiteko. 2010eko urtarrilean sinatu zenez, orain hitzarmena berritzea tokatzen dela jakinarazten die, dena den, aipatzen du hitzarmenak klausula bat daukala zerbitzuaren jarraipenarekin segitzeko, erabakia hartzen den bitartean.

*Les recuerda que en 2010 se firmó el convenio, con una duración de 15 años, para la gestión del agua por parte de Gipuzkoako Urak. Dado que se firmó en el mes de enero de 2010, se les informa de que ahora procede la renovación del convenio, no obstante, indica que hay una cláusula que hace referencia a la continuidad del servicio en tanto se adopte una decisión.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Alkateak komentatzen die bidali zaiela proposatutako hitzarmen eredua, asmoa daukala idazkariarekin aztertzea, eta atalak azaltzen ditu:

- Lehenengo atalean azalpen orokorra azaltzen da, non prezioen eta bilakaera zein izan den garatzen duen atala ikus dezakete. Lehenengo zati hau orokorra dela aipatzen du.

- Beste aldetik, Azken hamabost urteetan egindako inbertsioak jasotzen ditu, eta interesatzen zaio puntu hau azpimarratzea.

Honen barruan, azaltzen duenez, hitzarmen honek bi zati jasotzen ditu: Batean, kalkulua egiten da eta Udalak diru bat jasotzen du hitzarmena sinatzeko momentuan, eta bigarrenean, hortaz aparte, kontsortzioa konpromisoa hartzen du, (lagapenak irauten duen urteen arabera kalkulatzen dena), urtero zenbateko orokor baten inbertsio batzuk burutzeko. Alkateak, azalpena jarraitzen du esanez, 2010ean, hitzarmena sinatu zenean, 1.484.000 euroko inbertsioak egiteko konpromisoa hartzen zuela kontsortzioak, dena den, haiek aurkeztu dutenaren arabera, 2.462.727,15 euroko inbertsioak egin dituzte (BEZ barne). Gaia aztertzeko daukatela azaltzen du, alde batetik, ziurtatu behar dutela hitzarmeneko kopuru hori BEZ barne den edo ez; eta beste aldetik, eskatu nahi dietela inbertsio guzti horien zertifikazioak, teknikariak ohartarazi baitio, bere garaian lizitatutako kopuruak ematen zituztela baina gero, ez zietela izandako baja ematen, beraz uste dutela helburua bete dela baina hobe dela aztertzea ondorioztatzen du.

*<u>El alcalde</u> comenta que se les ha remitido el modelo de convenio propuesto, que tiene intención de analizarlo con la secretaria y explica los apartados que contiene:*

*- En el primer apartado consta una explicación general en la que se pueden ver los precios y el apartado que desarrolla la evolución. Señala que esta primera parte es general.*

*Por otro lado, recoge las inversiones realizadas en los últimos 15 años, que es el punto que le interesa subrayar.*

*Dentro de este apartado, explica que el convenio contempla dos partes: una, donde se realiza el cálculo del importe que el Ayuntamiento recibe. Se trata de una cuantía económica que recibe en el momento de la firma del convenio, y la segunda, que hace referencia al compromiso que asume el consorcio (que se calcula en función de los años de duración de la concesión). El alcalde continúa su exposición diciendo que en 2010, a la firma del Convenio, el Consorcio se comprometía a realizar inversiones por importe de 1.484.000 euros, si bien, según lo presentado, han realizado una inversión por un importe de 2.462.727,15 euros (IVA incluido). Expone que para analizar el tema tienen que verificar si la cantidad que indica el convenio es con IVA incluido o no; y que quieren pedirles la certificación de todas esas inversiones, ya que el técnico les ha advertido que en su día las cantidades que aportaban se correspondían con los importes licitados, y no con el importe finalmente adjudicado, por lo que creen que se ha cumplido el objetivo que indican, pero quieren comprobarlo.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Gero kontagailuak ere eraberritu direla azaltzen du, osoko bilkuratik pasatuko den gaia dela aipatzen du berriz baina beharrezkoak diren azalpenak emateko ekarri duela Tokiko Gobernu Batzarra. Dioenez, beraiek bi proposamen aurkeztu dituztela azaltzen du: 10 urtera edo 15 urtera baldin badoazen arabera, eta hori dela aztertu beharra daukatena. Beraz, jarraitzen du azaltzen orain arte bukatzen den epeko informazioa eskatu behar dietela (zehazki zertifikatutako kopuru horiek), eta kartografia osoa. Honen inguruan, aipatzen du, 2010ean eman zitzaien azpiegituretatik, esan behar dietela ze zati utzi duten eta ez dute erabili behar, Udalari bueltatzeko. Hor adibidez, bertan behera utzi diren kontzesio batzuk daudela aipatzen du, Itsasondotik datozen batzuk, beraz, ikusi beharko dutela horiekin zer gertatuko den (adibidez, obra txikiak egin behar direnean nori dagozkion zehaztu behar da, eta gero nola jasotzen dituzten).

*Explica que luego también se han reformado los contadores, reitera que se trata de un tema que pasa por el Pleno pero que lo trae a la Junta de Gobierno Local para dar las explicaciones necesarias. Dice que ellos han presentado dos propuestas: firmar para 10 años o para 15 años, y que eso es lo que tienen que analizar. Por lo tanto, sigue explicando que deben solicitarles la información correspondiente al periodo que finaliza ahora (concretamente para verificar que las cantidades que indican están certificadas) y la cartografía completa. A este respecto, señala que de las infraestructuras que se les entregaron en 2010, deben indicarles qué partes han dejado y que qué partes no necesitan para devolverlas al Ayuntamiento. Así, por ejemplo, menciona que hay concesiones que se han suspendido, algunas que vienen de Itsasondo, por lo que tendrán que ver qué va a pasar con ellas (por ejemplo, en el caso de obras menores hay que determinar a quién corresponden y cómo tienen que recogerlo).*

Maitane Alvarezek, EH Bilduko zinegotziak aipatzen du esan behar dutela hor abandonatu dituzten lurzoruen inguruan ea konpentsaziorik egin behar duten. Negozitu beharko da.

*Maitane Alvarez, concejala de EH Bildu comenta que hay que valorar si corresponde alguna compensación por los terrenos que han abandonado, que habrá que negociar.*

Alkateak, aipatzen du fibrozementuzko azpiegitura asko aldatu direla (adibidez, Buztuntza eta beste zenbait lekutan) eta honen inguruko azken urteetako irizpidea izan dela azpiegitura horiek lurperatuta uztea, beraz, lurperatuta utzitako zati guzti horien dokumentazioa eta kartografia eduki beharko genuela gero hori Udalari geratzen zaion arazo bat delako. Beraz, adierazten du, aztertzen ari direla ze gauza eskatu nahi dituzten, batez ere Udalaren zerbitzuak kartografia eguneratuta eduki dezaten, orain esaten baitzaie INKOLAN enpresara jo behar dutela. Jarraitzen du esaten Udalak

*El alcalde, comenta que muchas de las infraestructuras de fibrocemento han cambiado (por ejemplo, en Buztuntza y otros lugares) y que el criterio de los últimos años ha sido dejar soterradas estas infraestructuras, por lo que considera que deberían tener la documentación y la cartografía de todos esos tramos enterrados porque a posteriori es un problema que le queda al Ayuntamiento. Por lo tanto, indica que se está estudiando qué cosas quieren pedir, sobre todo para que los servicios del Ayuntamiento tengan la cartografía actualizada, ya que ahora se les dice que recurran a INKOLAN. Continúa diciendo*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

lagatutako instalazioen informazioa eguneratua ez jasotzea ez zaiela onargarria iruditzen. Beste aldetik, aipatzen du Inbentarioa baita ere eskatuko dietela, zeren kartografia hitzarmenari atxikitua sartzeko asmoa dute. Honen inguruan, esaten du 2010 eko hitzarmenean aipatzen duenaren arabera “dena” lagatzen zaie, eta alkatearen ustez hori zehaztu behar da, kontzeptu oso zabala delako, beraz, inbentario edo plano bat jasotzea komenigarria izango litzake.

*que no les parece aceptable que el Ayuntamiento no recoja la información actualizada de las instalaciones cedidas. Por otro lado, señala que también les pedirán el Inventario, ya que tienen la intención de incluir la cartografía adherida al Convenio. A este respecto, dice que en el convenio de 2010 se dice que se les cede "todo", y que considera que hay que concretarlo, ya que es un concepto indeterminado, por lo que sería conveniente recogerlo en un inventario o en un plano.*

Alkateak, jarraitzen du azaltzen bi aukera planteatu dituztela hitzarmena 10 urtekoa eta 15 urtekoa izan daitekeelako, beraz, 10 urteko hitzarmena aukeratzen badute, kontsortzioak 2.789.783 euroko inbertsioa egin beharko luke eta 669.172 euroko zenbatekoa (BEZ barne) eman beharko lioke Udalari, eta 15 urtekoa aukeratzen badute, kontsortzioak 4.184.674 euroko inbertsioa egin beharko luke eta 1.003.758 euroko zenbatekoa (BEZ barne) eman beharko lioke Udalari.

*El alcalde continúa explicando que se han planteado dos alternativas porque el Convenio puede ser de 10 años y de 15 años, por lo que, si se opta por el Convenio de 10 años, el Consorcio debería realizar una inversión de 2.789.783 euros (IVA incluido) y entregar al Ayuntamiento un importe de 669.172 euros (IVA incluido), y si se opta por 15 años, el Consorcio debería realizar una inversión de 4.184.674 euros y aportar al Ayuntamiento un importe de 1.003.758 euros (IVA incluido).*

Alkateak aipatzen du, hau dela haiek bidalitako informazioa, denok jakinaren gainean egoteko, dena den, aipatzen du, aztertu behar dutela eta ez duela uste urtarrileko osoko bilkurarako garatuta egongo denik.

*El alcalde, afirma que esta es la información que han remitido para que todos tengan conocimiento sobre ello, pero que tienen que analizarla detenidamente y que no cree que esté preparada para el Pleno de enero.*

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, aipatzen du ondo etorriko zaiola Udalari haiek infraestruktura berritu behar izatea, guk aprobetxatzeko kale hori altzatzeko etab.

*Julen Iraola, concejal de Podemos, comenta que le vendrá bien al Ayuntamiento que tengan que renovar a la infraestructura para que nos aprovechemos de ella para levantar esa calle, etc.*

Alkateak, ala dela erantzuten dio, Udalari ondo etortzen zaiola, espaloia puskatu behar denean, adibidez, Urdaneta kaleari dagokionez, bai bigarren fasea (Aldasoro tabernatik Cibeles iturriraino) kale osoko espaloiak zabaldu behar diela aurreko

*El alcalde responde que al Ayuntamiento le viene bien por ejemplo cuando hay que romper alguna parte de la acera. Pone como ejemplo el caso de Urdaneta kalea, concretamente, en la segunda fase (que va desde el bar Aldasoro hasta la fuente “Cibeles”) que hay que abrir la acera de*

izipideekin, eta hirugarren fasea (iturritik rotondaraino), ezpaloia zabaldu zen azkeneko zatian eta hor espaloia berritzea dela. Zaharrak daudenetan aprobetxatzen da urak berritzeko, baina batez ere saneamendua unitarioetaik separatibora pasatzeko.

*toda la calle y en la tercera fase (desde la fuente hasta la Rotonda), que se abrió la acera en el último tramo, y es necesario renovarla. Se aprovecha en las que están viejas para renovar las aguas, pero sobre todo para pasar el saneamiento de unitario a separativo.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

**6.- Urdanetarrak guraso elkarteak eskatutako bileraren data adostea.**

***6.- Urdanetarrak guraso elkarteak eskatutako bileraren data adostea***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Alkateak aipatzen du bi datak aurkeztu zituztela: 16an eta 22an, 22an informazio batzordea daukatela adierazten du eta 16an ezin dutela, beraz proposatzen du 28 edo 29an egitea.

*El alcalde comenta que se propusieron las dos fechas: el día 16 y el día 22, indica que tienen Comisión Informativa y que el día 16 no pueden, por lo que propone que se haga en 28 o 29.*

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, aipatzen du 28 hobe etortzen zaiola.

*Julen Iraola, concejal de Podemos, comenta que el día 28 le viene mejor.*

Alkateak esaten du Anari galdetuko zaiola, baina printzipioz 28an izango dela 17.00etan adostatzen dute.

*El alcalde dice que se le preguntará a Ana, pero en principio lo acuerdan para el día 28 a las 17.00.*

Ainhoa Jimenezek EH Bilduko zinegotziak, planteatzen du ea nola erantzungo zaien, bakoitzak mezu bakarraren bitartez edo mezu bat denon artean.

*Ainhoa Jimenez, la concejala de EH Bildu, plantea la cuestión de cómo se va a dar una respuesta, si cada uno por separado o entre todos.*

Alkateak erantzun bakarra emango zaiela komentatu die Tokiko Gobernu Batzarran hitz egin denaren inguruan.

*El alcalde le comenta que se dará una única respuesta de lo que se ha hablado en la Junta de Gobierno Local.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

**7- Kontratu txikien berri ematea 2024SCTX0069 / 2024SCTX0071 / 2024SCTX0072 (2024/1905, 2024/2017 eta 2024/2046 dekretuak).**

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Alkateak aipatu du emaila bidali dizkiela, esan du batzuk urte bukaerarekin azeleratu direla. Zerbait baldin badaukate kontratu baten inguruan galdetzeko eta azalpena emango zaiela.

*El alcalde, afirma que les ha enviado la documentación por email, que a fin de año se han tenido que acelerar muchos contratos, que si tienen cualquier cuestión sobre algún contrato que pregunten y se les dará las explicaciones que procedan.*

**Jakinaren gainean geratu da Batzarra.**

**8.- Zenbait txosten eta eskaera.**

Alkateak azaltzen du, abenduko oporrak egon direla eta, kudeaketa txostenak ez direla egon, baina eskatu behar dietela sail ezberdinei 2024 eko kudeaketa txosten orokor bat egitea. Sail bakoitzak hartu dezala hilabetea 2024 urtea ixteko. Asmoa da sail ezberdinei eskatzea urte osoko kudeaketa txostena egitea bakoitzak bere esparrutan.

***8.- Informes y solicitudes varias.***

*El alcalde expone que, debido a las vacaciones de diciembre, no han recibido todos los informes de gestión, pero que van a solicitar a los técnicos de los distintos departamentos la realización de un informe general de gestión del año 2024. Que cada departamento se tome este mes para cerrar el año 2024. Indica que se pretende solicitar a los diferentes Departamentos la elaboración de un informe anual de gestión en sus respectivos ámbitos.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**9.- Galde-erreguak**

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, aurreko aktaren inguruan, aipatzen du falta dela pertsonaleko gai bati buruz hitz egin zena. Baita aurrekontuaren inguruan hitz egin zen guztia falta dela adierazi du.

***9.- Ruegos y preguntas.***

*Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain-Elkarrekin Podemos, afirma en lo que respecta al acta anterior, que no consta algún tema de personal del que se habló.*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Alkateak erantzun dio espedientea izapidetu arte aktan ez jasotzea erabaki dela. Bestalde, aurrekontuari dagokionez, ez daki zertaz ari den.

*El alcalde le contesta que se ha decidido no recogerlo en acta hasta que no se haga efectiva la tramitación del expediente. Por otro lado, en cuanto al presupuesto, no sabe a qué se refiere.*

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak galdetu du, ea zergatik alkatearen soldata ez den azaltzen Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikorako Ministeritzako webgunean. Aipatzen du, adibidez, Beasaingo alkatearena azaltzen dela, baina ez Ordiziakoa. Honen inguruan esan du komentatu ziela baina ez dietela erantzun argia eman.

*Julen Iraola, concejal de Podemos, pregunta por qué el salario del alcalde no aparece en la web del Ministerio para la Transformación Digital y la Función Pública. Señala, por ejemplo, que aparece el del alcalde de Beasain, pero no el de Ordizia. En este sentido, dice que lo preguntó, pero no se les ha dado una respuesta clara.*

Galdetuko dutela adostatu dute.

*Acuerdan preguntar sobre este tema.*

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, komentatu du azokako ekoizle batek jarri duela zerbait sareetan eta Azokako kexak egon direla eta galdetzen du ea zer gertatu den horren inguruan.

*Julen Iraola, concejal de Podemos, comenta que un productor/vendedor de la feria ha puesto algo en las redes y que ha habido quejas en la Feria y pregunta qué ha pasado al respecto.*

Alkateak esan du ekoizle batek, haiekin hitz egin gabe, idatzi zuela sareetan. Azaltzen du inoiz ez dela esan kalefazioa jarri behar denik, eta hori inoiz ez dela mahai gainean egon. Gogorarazten du bere garaian aztertu zutela aukera lur “radiantea” jartzeko baino ezin zela ondorioztatu zuten, kalea delako. Toldoak eta beste zenbait gauza jarri direla aipatzen du, hobetzeko helburuarekin, baino berogailu sistema bat plaza berotzeko plaza kalea izanda, ezin dela baieztatzen du. Beste aldetik, aipatzen du, ekoizleari esan ziola kontraesan bat iruditzen zitzaiola bere postuaren aldarrikapena izatea “produktu ekologikoak dituela” eta gero eskatzea beste leku guztietan debekatzen ari diren kalefazio sistema anti-ekologikoa. Beste aldetik, alkateak aipatu du ekoizle hori esan duela entxufeak beheraino ez direla jaisten. Horren inguruan, plaza publikoa dela eta elektrizitatea bere araudia duela

*El alcalde explica que un productor, sin hablar antes con ellos, escribió en las redes sociales. Explica que nunca se ha comentado que se vaya a poner calefacción y que esa opción nunca ha estado sobre la mesa. Recuerda que en su momento se analizó la posibilidad de poner suelo radiante, pero al tratarse de la calle, se llegó a la conclusión de que no. Comenta que se han colocado toldos y otros elementos, con el objetivo de mejorar este tema, pero que un sistema de calefacción, siendo una plaza abierta no puede ser. Por otro lado, señala que ya le dijo al productor que le parecía una contradicción que su puesto reivindique "que tiene productos ecológicos" y que por otro lado esté pidiendo la instalación de un sistema de calefacción antiecológico que se está prohibiendo en otros lugares. Comenta además que éste productor ha dicho que los enchufes no llegan hasta*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

aipatzen du, eta neurriak eta altuerak errespetatu behar direla, segurtasun baldintzak bete behar dituztelako. Adierazten du, instalazio elektriko guztia ez duela emango bakoitzak kalefazio elektriko bat jartzeko, dena den saiatuko direla hobetzen baieztatzen du.

*abajo. A este respecto, señala que la plaza es pública y que la electricidad tiene su propia normativa, y que hay que respetar las dimensiones y alturas, ya que deben cumplir ciertas condiciones de seguridad. Afirma que la instalación eléctrica no dará para que cada uno coloque una calefacción eléctrica, si bien confirma que intentarán mejorarla.*

Beste aldetik, behin obra amaituta, toldoak eguzkia eta euria kentzen duten frogatzea falta zaiela adierazi du. Toldoak altura batean jarri dituztela arazorik ez izateko eta ez puskatzeko. Dioenez, helburua da horrekin batera eskatu dituzten korrontea mozteko elementu txikiagoak, gurpilak daramatzatenak eta ondo funtzionatzen dutenak. Dena den, jakinarazi du printzipioz ez direla iritsiko plaza osorako, baina asmoa da etortzen direnean probatzea. Azkenik, komentatzen du, egokiena izango litzatekeela postu bakoitzak atzealdeko partean halakoak edukitzea zeren proba egin zuten eta esan zietela nabaritzen zela ezberdintasuna.

*Por otro lado, señala que, una vez finalizada la obra, les falta comprobar si los toldos protegen del sol y la lluvia. Han puesto los toldos a una altura para que no haya problemas y no los rompan. Dice que el objetivo es que junto con esto se pidan unos elementos más pequeños para proteger de la corriente, que lleven ruedas y que funcionen bien. No obstante, informa que en principio no darán para toda la plaza, pero la idea es que cuando los traigan, se prueben. Por último, comenta que lo ideal sería que cada puesto tuviera en la parte trasera este tipo de elementos porque hicieron la prueba y les dijeron que se notaba la diferencia.*

<u>Maitane Alvarezek</u>, EH Bilduko zinegotziak komentatu du argazkian ateratzen diren ekoizle batzuk esan dietela beraiek ez zekitela zertarako zen argazki hori eta erabilita sentitu direla, egun horretan hotz handia egiten baitzuen, jende gutxi zegoelako, eta azken finean, ez zekitelako zertarako zen argazkia.

*<u>Maitane Alvarez</u>, concejala de EH Bildu, afirma que algunos productores se han quejado de la foto, porque dicen que ellos no sabían para qué era y que se han sentido “utilizados” porque además ese día hacía mucho frío y las condiciones no eran adecuadas y había poca gente y, que, en definitiva, no sabían para qué era la foto.*

<u>Julen Iraolak,</u> Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, galdetu du ea zergatik plazako azoka erdizka jarri den martxan eta ez da mantendu goiko partean obrak amaitu arte.

*<u>Julen Iraola</u>, concejal de Ordizia Orain-Elkarrekin Podemos, pregunta por qué el mercado de la plaza se ha puesto en marcha a medias y no se ha mantenido en la parte superior hasta que las obras finalicen.*

<u>Maitane Alvarezek</u>, EH Bilduko zinegotziak erantzun dio jende guztia kexatu behar zelako plaza itxita egon behar zelako eta ekoizleek ez zutelako nahi, galdezka zebilela ea noiz jaitsi behar ziren eta.

*<u>Maitane Alvarez,</u> concejala de EH Bildu, le responde que porque si no la gente se iba a quejar de que estuviera la plaza cerrada, que los productores no quieren estar arriba*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

*y les preguntaban continuamente cuándo iban a bajar.*

Alkateak, adierazi du, ikus dezaketen bezala, momentu honetan obrak martxan daudela baina asteburuetan gelditzeko konpromisoa daukatela. Azpiko basa horiek luzitzea eta pintatzea falta dela adierazi du, eta gero, fotovoltaikoa dagoen koadroarekin lotzea. Alkateak azaltzen du, plazako zati batean zanga bat irekiko dutela hori konektatzeko, konexio hori beharrezkoa delako toldoen sistema guztiak argindarra edukitzeko. Dioenez, datorren astean egingo dute froga manuala toldoekin eta gero ea azpiko elementu horiek etortzen diren aipatu du.

*El alcalde manifiesta que, como pueden ver, en este momento las obras están en marcha, pero tienen el compromiso de paralizarlas los fines de semana. Indica que falta el lucir y pintar las bases y luego unir las placas fotovoltaicas con el cuadro eléctrico que hay. Explica que en parte de la plaza se va a proceder a la apertura de una zanja para su conexión, ya que esta conexión es necesaria para que todo el sistema de toldos tenga luz. Dice que la semana que viene harán la prueba manual con los toldos y luego espera que lleguen el resto de los elementos solicitados.*

Maitane Alvarezek, EH Bilduko zinegotziak zakarrontziak eta megafonia iristear daudela aipatu du, baina hilabete bukaerako dena egongo dela adierazten du.

*Maitane Alvarez, concejala de EH Bildu, comenta que están a punto de llegar las papeleras y la megafonía, pero que para finales de mes va a estar todo.*

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, galdetzen du ea Altamiran eroritako zuhaitza moztu den.

*Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain Elkarrekin Podemos, pregunta si se ha talado el árbol caído en Altamira.*

Alkateak, moztu dela erantzun dio.

*El alcalde le responde que se ha cortado.*

Maitane Alvarezek, EH Bilduko zinegotziak aipatzen du, Josek oporretan zegoela, eta beste batek moztu zuela.

*Maitane Alvarez, concejala de EH Bildu, comenta que José estaba de vacaciones y que otro lo cortó.*

Joseba Aranburuk, EAJko Zinegotziak, aipatzen du baita farola okertu egin zela.

*Joseba Aranburu, concejal del PNV, comenta que también se torció una farola.*

Maitane Alvarezek, EH Bilduko zinegotziak baieztatzen du, farola okertu egin zela, eta obratakoekin hitz egin zutela, eta suposatzen dela ondo jarri behar zutela, espero duela aste honetan konfirmatzea.

*Maitane Álvarez, concejala de EH Bildu, afirma que la farola se torció y hablaron con el departamento de obras y que se supone que tenían que colocarla bien, que espera que se lo confirmen esta semana.*

Julen Iraolak, Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko zinegotziak, galdetzen du era berririk dagoen pleno aretoaren kamaren inguruan.

*Julen Iraola, concejal de Ordizia Orain Elkarrekin Podemoseko, pregunta si hay alguna novedad sobre la cámara del Salón de Plenos.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Alkateak, erantzun dio atzetik dabilela, eta kamera baino gehio, arazoa dela kableetatik deskonfiguratu egin dela eta etorri behar direla.

*El alcalde le responde que el problema más que la cámara, es que se ha desconfigurado el cableado y afirma que están pendientes de venir.*

Joseba Aranburuk, EAJko Zinegotziak, sexu eraso baten inguruan, aipatzen du komunikabideetan 26an jartzen duela, baina 25 gauean izan omen zela. Komentatzen dutela, Ordizia kaleko komunetan gertatu zela, baina ez duela ulertzen, Imanolekin hitz egin zuelako eta komentatu ziolako Ordizia kaleako komunak itxi egin zituela eta bakarrik plazakoak bakarrik utzi zituela irekita.

*Joseba Aranburu concejal del PNV, en relación a la agresión sexual que hubo, comenta que en los medios de comunicación dijeron que los hechos tuvieron lugar el día 26, pero que cree que ocurrieron el 25 por la noche. Asimismo, indica que ocurrió en los aseos de Ordizia kalea, pero que no entiende que fuera allí porque habló con Imanol y le comentó que cerró los aseos de esa calle y que sólo dejó abiertos los de la plaza del mercado.*

Ainhoa Jimenezek EH Bilduko zinegotziak, adierazi du galdetuko dutela, jakin behar delako gune arriskutsua izango den ala ez.

*Ainhoa Jiménez, concejala de EH Bildu, comenta que preguntarán, porque hay que saber si hay que identificarlo como un espacio peligroso o no.*

Maitane Alvarezek, EH Bilduko zinegotziak aipatzen du kendu behar dela aurreko aktatik 5. orrialdean dagoen atal bat, ez duelako zerikusirik aurrekontuarekin: *“alkateak esan du badakiela arazoa non dagoen baina teknikoak eta langileak egonkortzeak lan gatazka asko dakartzala”.*

*Maitane Álvarez, concejala de EH Bildu, comenta que hay que eliminar del acta anterior un apartado que está en la página 5, ya que no tiene nada que ver con el presupuesto, que es de lo que se estaba hablando, este apartado afirma lo siguiente: "comenta que saben dónde radica el problema pero que estabilizar al cuerpo técnico y a los trabajadores conlleva muchos conflictos laborales”.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la secretaria, certifico.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **IDAZKARIA /** IDAZKARIA NAIA RUIZ DE EGUINO |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| | |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAQ6Y06.c3Md |